

Hater-ak, Troll-ak eta Flammer-ak, sareetako biztanle ankerrak

Bilbo, 2019ko ekainak 20

Sare sozialetatik ailegatzen zaizkigun gorrotoaren diskurtsoak antzematen ikasteko eta hauek deusezteko zein erreminta erabil dezakegun ikasteko jardunaldia

www.ikteskola.eus/errespetua-interneten

#ErrespetuaInterneten

gehienez 100 pertsona

John Jauregia ("La Bolsa" Udal Zentrua), Pelota Kalea 10, Bilbo 48005

Izen-ematea: [Evenbrite bidez](https://respeto-en-internet-errespetua-interneten.eventbrite.es)
<https://respeto-en-internet-errespetua-interneten.eventbrite.es>

Sare sozialen bitartez ailegatzen zaizkigun "Gorrotoaren Diskurtso"-en inguruko Jardunaldia. Gorrotoaren diskurtsoa komunikazio ekintza bat da, desinformazioa, gaitzespena, ezinikusia edo gorrotoa sortu nahi duena pertsona baten edo pertsona talde baten kontra. Arrazakeria, xenofobia, islamismoaren aurkakoak, feministen kontrakoak, LGTB komunitatearen kontrakoak, lan-eskubideen alde edo beste eskubide baten alde borrokan ari diren taldeen kontrakoak diren mezuak. Erabiltzen ditugun sare sozialetatik ailegatzen zaizkigu, batetik edo guztietatik, eta baita web orrietatik edo komunikabideetatik.

Maila honek barne ditu berri faltsuak, zurrumuruak, memeak, txantxak, auzo kondairak, ezjakintza eta jakin nahi eza, eta gertakizunak ezkutatzeko informazio faltsua banatzea.

Ikuspegi positibo eta eraikitzaile batetik, pentsamendu kritikoa nabarmenduko dugu, "Gorrotoaren Diskurtsoaren" era ezberdinen inguruan hausnartu eta elkarbizitzan zelan eragiten duen ebaluatuko dugu, eta aldi berean, hezkuntzarako eta gatazkei aurre egiteko eta konponbideak aurrera eramateko erremintak banatuko ditugu.

Objektiboak

Hizlariak kontatuko dizkiguten bizipenei esker, sare sozial ezberdinetan (Facebook, Twitter, Instagram, YouTube...) aurki ditzakegun gorroto diskurtso anitzen barri izango dugu, eta hauei aurre zelan egin dieten. Honela, jardunaldira hurbiltzen diren helduak, guraso zein gizarte eta hezkuntza arloko profesionalak, trebatzeko eta sentikortzeko aukera izango dute.

Egitaraua

09:30-10:00 **HARRERA ETA AKREDITAZIOAK**

10:00-10:20 **JARDUNALDIAREN IREKIERA**

10:20-10:45 **Indarkeria sexistaren aurkako matzak**

Irantzu Varela – Kazetaria eta feminista. Faktoria Lila-ko koordinatzailea, Aló Irantzu-ren aurkezlea Pikara Magazine-n eta La Tuerka TV eta Público-ko El Tornillo sailaren sortzailea.

10:45-11:05 **"Smack Talk" – Gorrotoaren diskurtsoak bideo-jokoetan**

Alexander "Mezuky" González - 10 daramatza e-Sports delakoetan, boluntario, jokalaria eta koordinatzaile bezala. Ekimen antolatzaile, Eusko eSports-eko presidentea, eta PantallasAmigas-eko Gaming aholkularia.

11:05-11:10 **Bideoa**

PAU-ren historia, afektibo-sexual eta genero aniztasunaren inguruko kontakizuna.

11:10-11:30 **Genero aniztasuna eta ziberjazarpenera**

Vera Alonso – Euskadin edertasun lehiaketa batetara aurkeztu den lehenengo emakume trans-a.

11:30-11:50 **Mahai borobila eta ikusleen galderak**

Irantzu Varela, Alexander "Mezuky" k eta Vera Alonsok ikusleen galderei erantzunango diete.

11:50-12:10 **ATSEDENALDIA**

12:10-12:30 **Fikzioaren erabilpena errealitatea azaltzeko**

Txani Rodríguez - Idazlea, kazetaria eta zutabegilea. Duela 3 urtetik "Zurrumurrurik ez" ekimeneko laguntzailea, eta El Correo eta Radio Euskadiko laguntzailea.

12:30-12:50 **Sareko sute xenofoboaren aurkako gida**

Rosabel Argote – Filosofian eta Letretan Doktoa Californiako UNIBertsitatetik, irakaslea eta ikertaria izan da hainbat unibertsitatetan, eta 2003 urtetik CEAR Euskadin egiten du lan.

12:50-13:10 **Ahalduntzen eta sareak sortzen sexu ziberjazarpeneren aurrean**

Ianire Estébanez – Psikologoa, ezkongai-harremantzen ematen den indarkeriaren inguruan, sexu-erasoen inguruan eta sare sozialetan ematen den sexismoaren inguruan ikertzen aritu da azken 12 urteetan.

13:10-13:30 **Zeuk Esan zerbitzua sare sozialen bitartez ematea nerabeei**

Vanessa Pereiro – Haur eta nerabeen arretarako 116111-ZeukEsan Eusko Jaurlaritzako zerbitzuko gizarte hezitzailea.

13:30-14:00 **Mahai borobila eta ikusleen galderak**

Txani Rodríguez, Rosabel Argotek, Ianire Estébanezek eta Vanessa Pereirok ikusleen galderei erantzunango diete.

14:00-14:15 **Gelatan tolerantzia sustatzeko hezkuntza: PantallasAmigas-en bizipenak**

Iratxe Arias – Psikologoa eta PantallasAmigas-eko trebalaria. Argia Fundazioko boluntarioa eta Plentziako Topaleku-n begiralea.